

GETXO UDALERRIKO HONDARTZEN ERABILERA ERREGIMENA ARAUTZEKO ORDENANTZA EGIN AURREKO JENDAURREKO KONTSULTAREN IZAPIDEAN AURKEZTUTAKO EKARPENEI BURUZKO TXOSTENA.

Getxoko Udaleko Plan Arauemaileak jasotzen zuen, besteak beste, udalerriko hondartzak erabiltzeko araubidearen udal ordenantza egiteko proiektua.

Gero eta erabiltzaile gehiago etortzen da gure hondartzetara aisiaz gozatzera nahiz kirol jarduerak edo askotariko ekitaldiak egitera, uda sasoiaren bereziki, baina urte osoan zehar ere gero eta gehiago. Horrek ordenantza bat egiteko beharrezkoak dakar, espazio horietan arauak finkatzeko, egoera gatazkatsuak ekiditeko, erabiltzaile guztientzako segurtasuna eskaintzeko eta gure hareatzetako bisitari guztientzako bateragarria izango den erabilera ziurtatzeko. Genero ikuspegia txertatuko litzateke eta, gainera, hondartzek jasaten duten erabilera intentsiboaren eragin negatiboak arintzeko ahalegina egingo litzateke.

Arauren helburua da baliabide teknikoak, ekonomikoak nahiz giza baliabideak optimizatzea eta, horrela, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea, jarduerak garatzen diren eremua hobeto zaintzea, balizko eragin kaltegarriak murriztea eta onurak bultzatzea, betiere genero ikuspegia txertatuz.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betez, udalerriko hondartzak erabiltzeko araubidearen udal ordenantzaren proiektua egin aurretik jendaurreko kontsulta epea ireki zen, 2020ko uztailearen 1etik abuztuaren 15era artekoa, herritarrek nahiz ukitutako eskubide edo interes legitimoak ordezkatzen zituzten erakundeek ekarpenak helarazi ahal izateko. Horrenbestez, prozedura hori jada amaituta dago.

Ordenantzak egiteko prozedurari buruzko 1/2017 Instrukzioarekin bat etorriz, kontsulten epea amaituta, proposamena egiten duen sailak txosten bat egin behar du, aurkeztutako ekarpenak jaso eta aztertuko dituena, egin beharreko arauzko xedapen proiektuan txertatzeko, hala badagokie. Txosten hori udalaren webgunean argitaratuko da.

Jendaurreko kontsultaren aldia ez da inolako ekarpenik aurkeztu. Beraz, ordenantza izapidetzeko prozedurarekin jarraitu da.

Administrazio Orokorreko Teknikaria